

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Kide bakoitzari esleitutako kargua gure gaitasunetan oinarriturik dagi, eta lan edo kargu hori hoberen egin dezakeen pertsonari egokitu zaio. Dena guztion artean erabaki dugu, eta guretzako kargu bakoitzerako pertsonarik egokiena erabaki dugu, enpresa eta gure zerbitzuak ahalik eta ondoen aurrera eramateko, eta zailtasunen aurrean atzera ez egiteko.

Miguelek marketing lanak egiten ditu, hau garrantzitsua da gure enpresa ezagutzeko eta jende ezberdinei gure proposamena heltzeko. Marketinga egiteko lehenengo aukera gure proiektua durangaldekoko haur eskoletan azaltzea izango da, honetaz gain, kartelak eta aldizkariak erabiliko ditugu, interneten, batik bat, sare sozialetan. Produktu, marka edo zerbitzu baten eskaria ikertu, zehaztu, aztertu eta ebaluatzen du, gure kasuan haurrentzat bideratuako zerbitzu, produktu eta markak ikertuko ditu, publizitate-kanpainak eta -estrategiak garatzeko, xede-publikoaren berezitasunak kontuan hartuta. Ildo horretan, beren irudia ezartzeaz eta kontserbatzeaz arduratzen dira, enpresaren ikuspegia eta balioak mantenduz. Lehia eta merkatu potentzialak identifikatuko ditu, joerak monitorizatuko ditu gure zerbitzuan aldaketarik egin behar den zehazteko eta baita arlo guztiekin batera egingo du lan, bezero berriak erakartzeko gai diren estrategia berriak garatzeko.

Naia berriz, gerentea da. Honek garrantzia handia du guztia koordinatzeaz arduratzen delako. Gerenteak modu batean liderraren papela hartuko du. Lankideekin elkartuko da dena kontrolpean dagoela ikusteko.

Naiak bete beharko dituen zereginak hurrengoko hauek izango dira:

- Enpresak gauzatutako jardueren plangintza, antolaketa eta ikuskapen orokorra.
- Erakundearen baliabideak administratzea eta erakundea osatzen duten alderdien arteko koordinazioa.
- Erakundea estrategikoki gidatzea, eta, aldi berean, lider izatetik enpresaren barrualdera, eta bozeramaile izatetik kanpoaldera egitea.
- Erabaki kritikoak hartzea, batez ere gai nagusiak direnean edo erakundearentzat funtsezkoak direnean.
- Lantaldea motibatzea, gainbegiratzea eta bitartekotza egitea.

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

Laurak informatikaz arduratzen da. Gure webguneataz eta online bidez egingo ditugun hizketaldietaz arduratuko da. Lauraren karguarik dagikion egitekoak hurrengoko hauek dira:

- Enpresaren plataforma teknologikoa administratzea eta garatzea
- Gatazkak kudeatzea eta taldearen prozesuak eta zereginak eraginkortasunez gauzaten direla ziurtatzea.
- Konpainiaren eraldaketa digitaleko prozesuaren buru izatea.
- Konpainiaren prozesuetan eta produktuetan berrikuntza teknologikoak proposatzea, garatzea eta aplikatzea.
- Informazioaren eskuragarritasuna eta prozesamendua bermatzea, informazioaren segurtasuna eta osotasuna zainduz,
- Aldaketak, gorabeherak, gertaerak eta arazoak kudeatzea, enpresaren sistemetan ahalik eta disrupzio txikiena ziurtatuz
- Bezeroen atzeraelikadura ebaluatzea eta haien esperientzia zerbitzuak ezarri, hobetu eta hobetzeko erabiltzea.

Finantzak Enekok kontrolatuko ditu. Diruaren kudeaketa aztertzen du. Enpresaren eta estatuaren arteko diru-fluxuak aztertzen ditu, horiek guztiek dituzten kontsumo edo inbertsio beharretarako. Konpainiaren bizi-aktiboak babestuko ditu, finantza-erregulazioak betetzen direla ziurtatuko du, liburuak behar bezala ixten direla egiaztatuko du, eta direktorioarekin eta inbertsiogileekin eraginkortasunez komunikatuko du. Finantzen arloak eraginkortasunez jardun behar du, eta zenbait zerbitzu eman behar dizkio erakundeari, finantzen azterketa eta plana, besteak beste. Finantza-funtzioan eta enpresan aldaketak egitea sustatzen eta bideratzen du. Modu selektiboan, zenbait ekimen bidera ditzake, hala nola kostuen murrizketa, hornikuntzaren hobekuntzak, prezioen estrategia eta erakundeari balioa ematen dioten beste prozesu berritzaile batzuk.

Enara, ikerketa, garapena eta berrikuntzaz arduratuko da (I+D+I). Behar diren neurriak hartzea enpresak ahalik eta etekinik handiena lor dezan unitate bakoitzaren salmentarekin. Horrela, departamentu honek produktuen edo zerbitzuen errentagarritasuna handitzen ahalegindu beharko du.

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao